

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Barcina Lehendakariak bi lehendakariorde eta lau kontseilari berri izango dituen Foru Gobernuaren birmoldaketa aurkeztu du

Kargu berriez jabetzeko ekitaldia bihar, larunbata, goizeko 11:00etan egingo da Nafarroako Jauregian

Viernes, 22 de junio de 2012

Nafarroako Lehendakari

Yolanda Barcina hedabideen aurrean agertu da gaur eguerdian Gobernuaren birmoldaketaren berri emateko. Hala, Lourdes Goicoechea kontseilaria lehen

lehendakariorde eta Ekonomia, Ogasun, Industria eta

Enpleguko kontseilaria izango da, eta lau kontseilari berri

izendatuko dira hutsik gertatzen diren departamentuak betetzeko, bai eta eskumenak berrantolatzeko ere zenbait departamentutan. Sánchez de Muniáin kontseilariak Gobernuko bigarren lehendakariordetza hartuko du.

Barcina Lehendakariak ezagutzera eman dituen izendapen berriak honako hauek dira:

- lehen lehendakariordea eta Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu.

- Lehendakaritzako, Justiziako eta Barneko kontseilaria: Javier Morrás Iturmendi.

- Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioiko kontseilaria: José Javier Esparza Abaurrea.

- Gizarte Politikako kontseilaria: Jesús Pejenaute Grávalos.

- Sustapeneko kontseilaria: Luis Zarraluqui Ortigosa.

Lehendakariak Nafarroako Aldizkari Ofizialak bihar argitaratuko dituen izendapenen dekretuak sinatuko ditu gaur. Izendapen horiekin Foru Gobernu berria osatuko da, eta bihar ekingo dio bide berriari kargu berriez jabetzeko ekitaldiarekin, hiru kontseilari sozialistek gobernutik irten ondoren eta orain arteko lehendakariorde ekonomiko Álvaro Miranda ordezkatu ondoren.

Yolanda Barcinak, gainera, zuzendari nagusien mailan departamentuen arteko eskumenen berrantolaketaren berri eman du. Hala, lehen lehendakariorde berriak, Ekonomia eta Ogasuneko Departamentuaz



Nafarroako Jauregiko fatxada.

gain, bere eskumenei Industriari eta Enpleguari lotutakoak gehituko dizkio; eta Esparza kontseilariak Lourdes Goicoechearen esku jada geratuko ez diren bi arloez arduratuko da, Landa Garapenaz eta Ingurumenaz, Toki Administrazioaz gain, egun Lehendakartzako Departamentuko titularraren menpean zegoen zuzendaritza nagusia.

Lehendakariak asteazken honetan iragarri zuen moduan, aste honetako Gobernu Bilkuran erabakitako aurrekontuaren doikuntza neurriak eta enplegurako politika aktiboen sustapena azaltzean, kontseilari berriek berehala lan egingo dute beren departamentuetako egitura organikoak osatzeko, unitateak eta zuzendaritzako kideen postuak murrizteko xedearekin, horrek eman beharra duten zerbitzuaren kalitateari eragin gabe.


Galería de fotos



Lourdes Goicoechea Zubelzu. Vicepresidenta primera y consejera de Economía, Hacienda, Industria y Empleo.



Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia, vicepresidente segundo, portavoz del Gobierno y consejero de Cultura, Turismo y Relaciones



Javier Morrás Iturmendi, consejero de Presidencia, Justicia e Interior.

Institucionales.



José Javier Esparza Abaurrea, consejero de Desarrollo Rural, Medio Ambiente y Administración Local.



Jesús Pejenaute Grávalos, consejero de Políticas Sociales.



Luis Zarraluqui Ortigosa, consejero de Fomento.